

Bazkide agurgarri hori:

2012ko ekainean 33 pertsona sustatzailekin batera burututako batzar eratzaillearen ondoren, hiru lan-urte beranduago, 3. Ohiko Batzar Orokorra antolatzen ari gara gara: 3.000 bazkide gara jada, eta ia-ia beste hainbeste argindar kontratu.

Gaur, GoiEner Kooperatibak sorreratik ezarritako helburuak duintasunez betetzen ari dela berretsi dezakegu: 100% berriztagarria den elektrizitatearen merkaturatzea, eredu energetiko berri bat hedatzearen garrantzia, aurreztearen sustapena eta eraginkortasun energetikoa, herritarrak sektoreari buruz kontzientziatu eta heztea, lekuko enplegua sortzea... Hala ere, hurrenez hurrengo erreforma energetikoez ezartzen dituzten oztopoen ondorioz, sorkuntza arloan aurrera pauso handirik eman gabe jarraitzen dugu.

GoiEnerreko Errektoretza Kontseilutik 2014. urtean zehar gauzatutako lana partekatu nahi dugu. Batzarrean zehar posta elektronikoz aurreratutako dokumentazioaren puntu kritikoak azalduko ditugu. Sorreratik elebitasuna bultzatu badugu ere, aurtan, lehenengo aldiz, ezinezkoa izan zaigu biltzarreko informazioa bi hizkuntzatan bidaltzea. Onartzen dugu eta era berean atsekabetzen gara. Gertakari honek egun dauzkagun mugak erakusteaz gain, aurreko dokumentazioa posible izatea ahalbidetu duten hainbeste pertsonen burututako ahalegina eta lana are gehiago baloratzeke balio izan digu: albisteak, aktak, hedatze materiala, ... Bidenabar, dokumentazio hau euskaraz burutzeko laguntza eta boluntarioak eskatzeko ere aprobetxatzen dugu.

Batzar honetan, kooperatibako bi bazkide-langileak, Zuzendaritza Kontseilua eta Errektoretza Kontseiluak, talde guztiak gauzatutako lana eta baita 2015erako planteatutako apustu estrategikoa ere, boto bidez berretsi dezazuen eskatzen dizuegu. Hau honela izatea ezinezkoa bada, zure kritika modu eraikitzailean azaltzea eskertuko genizuke (ez bakarrik boto bidez, zure proposamenak adieraziz eta lan-taldeetan eskaintzen dizkizuegun partaidetza mekanismoetan parte hartuz baizik). Edozein kasutan, talde honi emandako konfiantza eta partaidetza eta kontsumoaren bitartez GoiEnerri eskainitako laguntza eskertzen dugu.

Mugimendu sozial moduan, Goiener gure gizarteko aktore ezberdinak biltzen dituen Partaide ANITZA bilakatzen hari dela ikusten dugu. Kolore eta adar guztietariko jendeak, esparru askotariko elkarteak, PYMEek, erakunde publikoak, irakaskuntza zentroak, enpresa-taldeak, parrokiak, ... herritartasunetik gizarte osoarentzat jaiotako ekimen honenganako apustu eta proposamena bermatzen dute.

Gure nahia, etiketa eta aurreiritzietatik at, energia berriztagarri eta ekonomia jasangarri berri baten motorrean oinarrituz, sistema energetiko deszentralizatu baten mezua hedatzeko helburuarekin lanean jarraitzea da, errealitate bilakatzen ari garen heinean. Halaber, modelo hau nonahi finkatzen laguntzea da gure ametsa, Kantabria, Galizia, Soria, Guadalajara, edo urrunago joan gabe, Iparraldeko I-Ener kooperatiben kasua den moduan.

Gizarteko modelo energetikoa aldatzea lasterketa sakon bat da, non gizarte hau osatzen duten pertsona guztien laguntza behar den. Kooperatibako boluntarioen lana EZINBESTEKOA eta ordaintezina da zentzu honetan. Horregatik, gaur, merkaturatze eta mugimendu sozialaren arteko ekintzak banatzea proposatzen dugu. Eta bolondresei dagokien protagonismoa ematearren, GoiEner ELKARTEA osatzea proposatzen dugu, irabazi-asmorik gabeko elkarteak. Bere funtzioa ondorengoak izango dira: Batetik mugimendu soziala eta GoiEnerren hasierako

ametsa zaintzea, eta bestetik, sorkuntza, zerbitzu energetikoak, hedapena, ... bazelako ekintza berriei bidea erraztea.

Denbora honetan zehar eskainitako babesagatik gure esker ona adierazi nahi dizugu behin eta berriz, eta zurekin batera modelo energetiko eta ekonomikoa aldatzen jarraitzea espero dugu.

Agur bero bat,

Joanes Maiza